

ALBERT MAKAKOAK

26.1.- Aukeratu erantzun egokia:

Zergatik harritu da Tasio? zer da ez dakiena?

- a) Kevinek ez duela adikziorik, ez duela dagoeneko pilularik hartzen.
- b) Eskisabel haurdun egon daitekeela.
- c) Eskisabelek otorrinoarengana joan behar duela.

Zein bidali dute espaziora lehenengo aldiz?

- a) Albert lehenengoa, Makako deitzen zioten erregea.
- b) Makako Rhesus izeneko tximu bat.
- c) Albert lehenengoa izeneko makakoa.

Espaziora bidalitako tximu guztiak ...

- a) hil egin ziren, genozidio bat izan zen.
- b) ez ziren hil, izena aldatzearekin batera, bizirik itzultzen hasi ziren.
- c) ez ziren hil, 20 bat itzuli ziren bizirik.



26. atala: bakarka

26.2.- Erreparatu esaldi honi:

“makakoei izena aldatu bezain pronto, bizirauten hasi ziren”

Noiztik hasi ziren bizirauten makakoak?

- A. Izena aldatu baino lehen
- B. Izena aldatu eta berehala
- C. Izenda aldatu eta handik denbora batera

Bezain laster edo bezain pronto

Zerbait egin edo gertatu eta berehala gertatzen denari egiten dio erreferentzia. Honela eratzen da:

Aditz partizipioa + BEZAIN LASTER (edo BEZAIN PRONTO)

Adibidez:

Jakin **bezain laster** etorri naiz (jakin eta berehala etorri naiz).Etxera **heldu bezain laster**, ohera sartuko naiz (heldu eta berehala).Denborazko esaldi batzuk dituzu hemen. **Entzundako istorioarekin bat etorritz**, bete hutsuneak:

Espaziora Albert makakoak bidali _____ bidali zuten Able tximua.

- a) zituztenetik
- b) ondoren
- c) bezain laster

Makakoak bizirik itzultzen hasi _____ izenak aldatzen hasi ziren.

- a) ziren bitartean
- b) baino lehen
- c) zirenetik

Eskisabelek “makako” deitu _____ sutan jartzen da Kevin.

- a) duenetik
- b) duenean
- c) bezain laster

Bigarren koheteak eztanda egin _____ hil egin zen Albert II.a.

- a) zuenetik
- b) bezain laster
- c) baino lehen



26. atala: bakarka

Transkripzioa (03:05)

E- Aizu, Johnson, zer moduz zure arazoa?

K- Arazo? Zein arazo?

E- Badakizu... pilulekin duzun adikzio kontu hori.

K- Nik dakidanez, pilulak ez hartzeagatik arazo bat sortu duena beste norbait izan da.

T- Zertaz ari zarete?

E- Ez da ezer... presaka nabil eta gaurko betebeharren txostena bidali berri dizuet.

T- Eta zergatik zabilta, bada, presaka?

E- Medikarengana joan behar dut.

K- Medikura? Ze mediku motara? Ez da bada ginekolo....

E- Otorrinoarengana noa, errebisioa egitera, otorrinoarengana!

T- Iruditzen zait zeozer ezkututzen didazuela.

E- Baina etengo al duzue behingoz bi makako hauekin konexioa!

K- *Makako* deitzen digunean ez dit batere graziarik egiten.

T- Espazio-operazioetan ohitura duk hori.

K- Ohitura? A! igual horregatik azaltzen dira espazio pelikuletan hainbeste tximu? 2001 Espazio Odisea, edo Tximinoen planeta, edo...

T- Aber, horrek ez zeukak zerikusirik. Espaziora bidali zizkiaten lehen izakiak makakoak izan hituan, *Macaco Rhesus* espeziekoak, hain zuzen ere.

K- Macaco Jesus?

T- Macaco Rhesus... 1948an bidali ziaten lehendabizikoa. Albert lehenengoa.

K- Jesus, errege baten izena dirudi.

T- Bada, oxigenorik gabe geratu eta ito egin huan eta segidan Albert II.a, III.a, IV.a eta V.a bidali zizkiaten.

K- Eta? zorte gehiago izan al zuten hauek?

T- Bada, bigarren koeteak eztanda egin eta hil egin huan. Hurrengoak lurra hartzean kolpea hartu eta seko, segidan itota beste hiruzpalau hil hituan eta...ba!

K- Joder, makako-geozidua!

T- Bueno, eta koetek ejektatu eta bizirik atera behar zian Albert VII.ari...

K.- Baina...

T.- ... ez zitzaioan paratxuta ireki!

K- ...zenbat Albert bidali zituzten espaziora, bada?

T- Bada, 20 bat, eta kuriosoena duk, makakoei izena aldatu bezain pronto, bizirauten hasi zirela. Bizirik itzuli zen lehendabizikoa Able izeneko makakoa huan.

K- Eskisabel kapitaina, orain badakit makako esaten diguzunean ez duzula iraintzeko asmoz egiten.

E- A, ez? Eta nondik atera duzu hori?

K- Tasiok kontatu dit makako-astronautena.

E- Ortzinautak!

L- Bueno, bada, hori... Makako-ortzinauten istorioa.

E- A, bai? Bada, konta diezadala niri ere, ze... ez dut halakorik ezagutzen.

T- ...eta horregatik, harrez geroztik espaziora bidaltzen zuten makako bakoitzari izen ezberdin bat jartzen zioten.

E- Eta ba al zenekiten ohitura horrek gaur eguneraino iraun duela?

T- A, bai?

K- Uste nuen ez zenekiela ezer makako espazialen inguruan...

E- Ezetz asmatu zein den espaziora bidali diren azken bi makakoen izena?

26. atala: bakarka

Erantzunak

26.1.-

- b
- c
- b

26.2.-

B- Izena aldatu eta berehala

- Espaziora Albert makakoa bidali **ondoren** bidali zuten Able tximua.
- Makakoak bizirik itzultzen hasi **zirenetik** izenak aldatzen hasi ziren.
- Eskisabelek makako deitu **bezain laster** sutan jartzen da Kevin.
- Bigarren koheteak eztanda egin **bezain laster** hil egin huan Albert II.a.